

Zertarako dira kristauok? Sozialismoak behar ditu kristauok, ala kristauak behar dituzte kristauok?

Gure lurraldeek behintzat behar dituzte. Hala ikusten da. Halare, taldeon eginkizuna lehenbailehen suizidatzea litzateke, beren lana ondo egingo balute.

Kristauak behar dituzte. Aspaldion sozialismo arazoan egin duten inpresio txarra piska bat erremediatzeko gutienez. Pentsa dezakegu, orain esate baterako Italiatik datozkigun berriekin, zein situazio larritan aurkituko diren sozialismoaren aldeko kristauok... Komunistak kristauen kontra daudela, esan ohi dute kristau batzuek eskandalizaturik. Bozemaldietan Aita Santu eta Gotzain eta guzi, trumoi eta tximistaka, komunisten kontra irten, eta komunistek eskerrik asko ematea espero dute, seguru asko. Sozialismoaren aldeko kristau batzu behar dituzte, bai, kristauak.

Sozialismoak ere behar ditu. Sozialismoak ez du ezer irabazten, kristauak kontra dituela. Edo kristauak alde batera dituela. Tradizio sozialistan sozialismoak berekin behar zuen elementu gehiegi galdu da, kristauen kontra desarrollatu behar izan duelako. Hemengo gizon hau aspaldikoa da. Zorakeria litzateke, gizarteok kristautasunik izan ez balitz bezala imajinatzea. Gizon honek egin dituen gauzen artean bat kristautasuna da. Eta ez okerrena.

Gauzak diren bezalaxe dira. Ez dago erremediorik. Trumoi absurdorik ez dago. Pago absurdorik eta laino absurdorik ez dago. Baina izadian ez dagoe, gizonon historian dago. Mila absurdo. Eta haundientxo bat, sozialismoaren eta kristautasunaren arteko historia da.

Duela urte batzuk, noizpait ere kristauen eta komunisten arteko elkarriketak hasi zirenean, kristau eta komunistak askoren esperantzak elkartu egin ziren. Hasieratik bertatik zerbait absurdo zuten elkarriketa haiek. Ordura artekoa baino hobe, alere. Elkarriketak berak geroz eta ofizialago bilakatuz joan dira. Geroztik absurdoago bihurtuz. Baina elkarriketa giro hartan inizatiba berriak biztu ziren. Sozialista diferenteak eta kristau diferenteak dabilta munduan harrez gero.

Kristauak sozialismoaren alde izeneko mugimenduak Txilen hartu zuen izen eta ohore. Dirudenez, beste leku batzuetan izen hori hartu dutenek, haien eredu ere hartu dute. Bildur naiz, haien ohorea ere berentzat nahi ez ote duten. Eta lana eta obrak baino lehenago ez ote datozkigun izenez eta ohorez, beste batzuen lanaren eta odo-

Kristauak Sozialismoaren alde

Joxe Azurmendi

laren kontura. Lana ez zaie faltako, lanik nahi badute. Baina egon eta ikusi.

Kristau eta sozialista sentitzen den batek, halere, puntu batzuk aldez aurretik garbi ikusi nahi lituzke:

Kristauak zer egiten duten, egiten dutenen kontu da, ez kristauna. Aspertuta gaude ikusten, kristau batzuk

besteak baino kristauago direla eta kristautasuna bera direla. Kristautasuna omen ziren kristau batzuek, etxean bertan, ez aspaldi, zer gerra egin zигuten, ezin zaigu ahaztu. Ez zirela kristauak, asmatu dute gero beste batzuek. Guk esaten dugu, kristauak zirela. Bai, jauna. Eta kristauak direla, lehenago organo eta intzentsuekin eta orain bonba eta mitrailetekin liturgia ospatzen duten Kristo Erregeren soldadua. Eta horixe dela problema.

Kristauak sozialismoaren alde taldeak beharrezkoak omen dira. Halaxe bedi. Kristauen eta sozialisten arteko historia, egia esateko, ez da triste. Tristeago da triste baino ere. Eta beste kapitulu bat tristeago bihurtuko da, kapitulu hau kristautasunaren eta sozialismoaren arteko gorabeheren kapitulu bihurtzen bada.

Sozialista izateko sozialista izatea besterik ez da behar. Kristauntzat ere halaxe da hori.

Donostlako bi gotzaiak mintzo

Terrorismoaz eta torturaz

Gipuzkoako apaizei bidali zitzaizen gutuna irakurri zen Elizbarrutiko elizetan, lehengo igandean. Jendearen ahotan bolo-bolo dabilzan bi hitz ditugu terrorismoa eta tortura.

Batzuk lehengo aginte gogorrari eusteko egiten dute terrorismoa, besteek, berriz, aginte gogorra pitza dadin.

«Terrorismoa ez da gelditzen, represioa gogortzen ari da, eta beste talde batzuk sartu dira tartera, gogorkeriaz ordena jartzeko eskubidea omen dutela», **diote Donostiako gotzaiak.**

«Zenbait jenderi desapio gogorrak —hiltzekoak eta guzi— egiten zaizkio, dirua eman dezan zenbait talde eta ekintza politikorentzat; gero eta gehiago dira, nunbait, estura eta desafio hoiengatik dirua ematen dutenak; norbaitzuk beren etxetatik kanpora omen dabilta, berriz, amenazo hoiek beteko dituzten beldurrez».

«Ekintza-modu hoiaren aurkako represio eta ekintza hoiaren eragile diren taldeak desegiteko, zenbait ordena-zaintzailek tratu txarrak eta era bateko eta besteko torturak erabiltzeraino gogortu du. Uste izanez, gainera, bidezko gauza bat dela tortura erabiltzea, nahi den informazio hura lortzeko edo egin den okerraren aitortpen bat eskuratzeko».

«Jendeak gero eta gehiago uste du, berriz, talde antiterroristak libre bezala-edo dabilzela; eta hauen desafiopean dauden herritarrek, berriz, zor zaien babesik ez dutela aurkitzen».

Eta terrorismoa eta torturak aipatu ondoan hoiengaitzespena egiten dute. «Ez dagoe inolako etikaz eta kristautasunez onartzerik, torturak eta salatu ditugun gogorkeriazko beste modu hoiek».